




museo Zumalakarregi

XIX. mendeko Euskal Herria ezagutu eta goatzeko Erreferentzi Zentroa



BISITA ORDUTEGIA

Asteartetik ostiralera:
10:00-13:00/15:00-19:00

Larunbata eta igandetan:
11:00-14:00/16:00-19:00

Astelehenetan itxita



MUSEOA ETA BERE BILDUMAK

Iriarte-Erdikoa etxea, Zumalakarregi Museoa gaur egun, XVIII. mendeko baserri tipikoa da. Bertan bizi izan zen Zumalakarregi familia, hauen artean bereziki Tomas Zumalakarregi jeneral karlista eta Miguel Antonio Zumalakarregi politikoa liberala.

Euskal Herria XIX. mendean Museoa, XIX. mendeko Euskal Herria ezagutu eta goatzeko Erreferentzi Zentroa da. Gaur egungo gizartea ezagutu eta ulertzeko garai nagusia izanik, eztabaida, gaurkotasan handiko XIX. mendean zehar bidai dinamikoak eskaintzen du.

Museoaren bildumak

Zumalakarregi eta bere familiaren objektu adierazgarriez osatua: pertsonalak, apaingarriak, armak, sableak, ezpatak, fusilak, uniformeak, prefilatelia eta numismatika gaiak.

XIX. mendeko dokumentazio zentroa

Agiri multzoa, eskutitz sailak, gai desberdinei buruzko txostenak, prentsa, irudi gai ugari eta idazlan militar, biografiko, zientifiko eta orokorreko buruzko fondo bibliografikoak. Zentroa ikertari mota guztiei dago zabalik.



GUNEAK

Erakusketa iraunkorra

Zumalakarregitarak Aintzinako Erregimenak zituen egitura politiko eta sozioekonomikoen suntsiketaren eta Sistema Liberalak zekarrenaren arteko dardaretan bizi eta hil ziren. Gatazka belikoz eta aldaketa politiko erdiragarritz jositako garaia izan zen.

Erakusketak XIX. mendeko euskal gizarteak izandako aldaketak azaltzen ditu, Karlistaden zergatiak, giltzariak eta ondorioak azpimarratuz.

- Zumalakarregitarren garaia
- Karlistadak

Multimedia guneak.

- "Bi mundu aurrez aurre" ikusentzunezkoa
- "XIX. mendeko historia militarra Euskal Herrian" modulo elkarrengileak
Lehenengo Karlistadako gertaeren begirada eskaintzen du, modu xume, bizi eta ikusgarrian, ekintza eta bataila nagusiak deskribatuz, liskar hauetan parte hartutako armada sailak, baita protagonista nagusien biografikak ere, testu, mapa eta grabatuekin.

- "Esplora ezazu XIX. mendea" lantegia

XIX. mendeko gizartea, hau da, jendea, etxeak, janzkerak, bidaiak... ezagutzeko gunea. Garai hartara hurbiltzeko modu desberdina eskainiz, proposamen erakargarri, ludiko eta partehartzaileren bidez: joku, jantzi eta arropak, puzzleak, buruhauskarriak, komikiteka, kiosko digitala.



EKINTZAK ETA ZERBITZUAK

Oso eskaintza zabala eskaintzen du, familia, eskolaume zein helduei zuzendutako proposamen ludikoen ondoan espezializatuenak ere, hala nola, ikerketak, aldi baterako erakusketak, argitalpenak eta abar.

Bisitaldi gidatuak

Eskolaume zein helduen taldeei zuzendutako, material didaktiko, eskufoileto eta irakasleentzako azalpen gidak:

- Zumalakarregi anaiak: Tomas, jeneral karlista eta Migel, politikoa liberala
- Iraultza garaia
- Industria Iraultza
- XIX. mendeko trenzubia. Ormaiztegi
- Estatu liberalaren sorrera
- Gerra eta bakea
- Burdinaren bideak

Ikastetxean erabiltzeko material didaktiko digitala eskaintzen dugu

"Munduari bira 80 egunetan" familientzako lantegia

Julio Vernearen eleberria oinarritzat hartuz munduari bira 80 egunetan ibilbidea egiteko joku partehartzailera, Bertan, eragozpen eta egoera onuragarri asko izango dira. Beste garai bat, hau da, XIX. mendea ezagutzeko modu dibertigarria.

Aldi baterako erakusketak

XIX. mendeko arlo sozialak era literarioan, abenturazalean eta zientifikoan jorratzen dituzte, garai hori ulertu eta ikusteko begirada desberdinei buruz ausnartzeko.

Argitalpenak

"Azterketa Historikoak" biurtekaria.
Museoaren katalogo orokorra eta erakusketenak.

MUSEOA INTERNETEN INNOVA SARIA 2008

"XIX. mendeko albuma"

Euskal Herriari buruzko 3.500 iruditik gora dituen kultur webgunea. Irudiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren funtsetakoak dira.

"Euskal Herriko historia militarra Euskal Herrian"

- Ekintza eta bataila nagusien deskripzio testuak, mapa eta grabatuekin.
Liskar hauetan parte hartutako armada sailei, baita protagonista nagusien biografiei buruzko informazioa ere.

"Zumalakarregi Museoko bildumagari birtualak"

Hileroko bildumagariak .
- "XIX. mendeko karikaturetan". Umorea, distortsioa eta kritika soziala.
- "XIX. mendeko jendea". Historiako protagonista xumeak.
- "XIX. mendea hamarkadetan". Garaiko gertaeren inguruan ibilbidea.
- "Ezetz asmatu". Bildumagari elkarrengileak.

"Joku digitalak"

- "XIX. mendeko tribiala"
- "XIX. mendean bizi"
- "Baina zer da hau?"

